



**ETXETIK ETXERA**  
IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Unitate didaktikoa



GIPUZKOA  
KULTURA

## JUSTIFIKAZIOA

2020. urtean sekula bizi gabeko egoeren aurrean topatu gara. Gizarteko egoera eraldatzearekin batera gure etxebizitzek ere beste dimentsio bat hartu dute: lantoki, eskola, jolastoki, zinema, liburutegi... bilakatu behar izan dute. Hori dela eta, etxeaz zein bere inguruneaz hausnartzeko bidea ireki nahi dugu. “Etxetik etxera” jarduerarekin antzinako zein gaur egungo etxeen ezberdintasun eta antzekotasunetatik abiatuta geure etxebizitzek eskaintzen dizkiguten zerbitzu ezberdinez jabetzeko.

## ONARRIZKO KONPETENTZIAK

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentziak.
- Ikasteko eta pentsatzeko konpetentziak.

## HELBURU DIDAKTIKOAK

- Bizi garen inguruneaz jabetu eta hausnartzea.
- Bakoitzaren etxeko txokoak paperean islatzea.
- Gure egunerokotasunean erabiltzen ditugun elementuez kontziente izatea.
- Urtetan zehar oinarrizko elementuek izan duten garrantziaz jabetu eta eraldaketen inguruan hausnartzea.
- Antzinako eta gaur egungo etxebizitzak alderatzeko gaitasuna.
- Entzumenaren bidez jarduerak identifikatzea.
- Aurrez jasotako informazioarekin eta marrazkien laguntzaz zentzua duen istorio bat garatzea.

## BALIABIDEAK ETA TRESNAK

Oinarrizko materiala:

- “Etxetik etxera” liburuxka
- Ordenagailua
- Bozgorailuak

## TALDEKATZEAK ETA ANTOLATZEA

- Eskolan ezarritako segurtasun neurriak bete beharko lirateke.

## HASIERAKO FASEA

- Testuingurua: Etxebizitza batean landu daitezkeen alor guztiez jabetzea.
- Erronka: Etxebizitzak eta ingurunea balioan jartzea.
- Ataza: Etxea balioan jarri eta honen eta bere inguruaz hausnartzea, baita etxebizitzaren aldaketa landu eta oinarrizko gauzen beharraz jabetzea ere. Prozesu hau jasotzeko eskainitako materialak osatu beharko dituzte eta bukatzeko euren etxebizitza irudikatzen duen komiki bat egin.

## GARAPEN FASEA

- Lehen zatian norbera bere etxean kokatzen joango gara. Martintxo, Igartubeitiko semeak baserriaren nondik norakoak azalduko ditu. Etxean burutzen diren jarduerak ingurunearekin nolako harremana izan dezaketen pentsarazi eta hausnartzera bultzatuko ditugu. Eurak etxean dutenarekin alderatuz ea zein antzekotasun eta desberdintasun antzematen dituzten.

Kaixo!  
Ni Martintxo nauzu.

NOR ZARA ZU?  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

NON BIZI ZARA?  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

NOREKIN BIZI ZARA?  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Ni Ezkio izeneko herri txiki batean bizi naiz, Igartubeiti Baserrian, Igartubeiti, honela du izena nire etxeak. Zure etxeak ba al du izenik?

ZEIN DA ZURE ETXEAREN IZENA?

\_\_\_\_\_

AUKERATZERIK IZANGO BAZENU, ZEIN IZEN JARRIKO ZENIOKE?

\_\_\_\_\_



Galdera proposamenak:

- Nolakoa da zuen herria? (Handia, txikia, etxe askokoa, gutxikoa, pisuak, banakako etxeak...)
- Zure herriko etxeek izenik ba al dute? Gehiengoak?
- Kaleak dituzue? Asko?
- Auzo asko al dago? hurbil daude edo bananduta?
- Nola mugitzen zarete herrian? Autoz, oinez, bizikletaz...?



Nire etxea aspaldi  
aspaldiko baserrria da,  
500 urte ditu, bertan bizi  
naiz nire familia eta  
animaliekin. Animaliek  
ere ukuiluan euren  
txokoa dute baserrian!

Galdera proposamena:

- Zuen etxeak zaharrak edo berriak dira?
- Zenbat etxe dituzue?
- Betidanik etxe berdinean bizi izan zarete?
- Zuen familiak zenbat denbora darama bertan bizitzen?
- Zein bizi zarete etxean?
- Animaliarik ba al duzue?
- Bere txokoa al du etxean?
- Zergatik duzue animalia etxean?
- Martintxok ukuilua aipatu du, ba al dakizue zer den ukuilua?
- Ze animalia izango zituzten bertan?(behiak, ardiak, txerriak, idiak...)
- Zertarako zituzten animaliak etxean? (Janaritarako, berotasuna emateko, lanerako...)

\*Modu honetan, errealitate ezberdinak azalarazi eta elkarrekiko errespetua sustatzea izango dugu helburu, ona edo txarra dena alde batera utzita kontziente izaten eta egoera bakoitzarekiko errespetua erakusten jakin beharko dute.



Galdera proposamena:

- Zuen etxean lanik egiten al da?
- Zein motatako lanak egiten dira bertan? (Garbiketa, sukaldaritzza, zaintza, konponketak, jostun lanak, eskulanak, ikasketak...)
- Lan horietarako erabiltzen diren makina edo objektuak zein dira?
- Etxeko zein tokitan egiten dira lan horiek?
- Zeinek egiten ditu?

Behin etxe bizitzaz, bertako biztanleez eta bertan egiten dugunaz pixka bat hitz eginda, Martintxok kontatutakoarekin baserrian kokatzen saiatuko gara hausnartuz etxean egiten ditugun ekintzak gure ingurunearekin (kanpoaldearekin) harremanik duten edo ez eta horren arabera ingurune hori marraztu beharko dute.

Behin Igartubeitiko etxe ingurua marraztuta lanketa berdinetik abiatuz euren etxe ingurua nolakoa den marraztu beharko dute eta honen zergatia azaltzen saiatu.

Behin kanpoaldekoa irudikatuta, etxea irudikatzeko txanda iritsiko da. Bertan plano baten bitartez, etxeko gela guztiak irudikatu beharko dituzte, baita bakoitza zer den eta zertarako erabiltzen den adierazi ere. (Azalpenetarako gela bakoitzari zenbaki bat eman eta hurrengo orrian idatzi ditzakete azalpenak).

Behin planoak eginda hurrengo elementuak aztertzen hasiko gara: garrantzitsuak iruditzen zaizkien edo ez, guztiak etxean dituzten edo ez, ze formatutan dituzten (janaria, hozkailuan, baratzen, zuhaitzetan. Berogailuak, beheko sua. Bonbilak, leihoak).

Elementuak ondo identifikatuta ditugunean, bakoitza etxeko ze gelatan kokatzen den adierazi beharko dugu eta behin kokatuta berriz garrantziaz hausnartu, zenbat gauzatarako erabiltzen ditugun, nolako arazoak suertatzen zaizkigun ez baditugu...

Behin elementuak aztertuta eta forma ezberdinak izan ditzaketela jabetuta, ondorengo argazkietan ageri diren elementuak zer diren eta zein funtzio betetzen duten aztertu eta azaldu beharko dute. Ondoren, baserriko planoetan kokatu beharko dituzte elementu bakoitzaren zenbakiak, noski nahi bestetan errepikatuz, eta azaldu, zergatik kokatzen dituzten elementuak toki bakoitzean.

Lanketa hori egin ondoren, webgunean "material osagarria" gisara adierazitako materiala erabiliko dugu. Txostenean zehar, baserriaz, etxeaz, hauen erabileraz, etab. jardun dugu. Saio honetan hausnarketari bidea irekitzen jarraituko dugu, oraingoan modu orokorrago batean. Horregatik beste ezertan murgildu aurretik:



- Etxea hitza entzutean zer datorkigu burura?

## GARI KUTXA



- Zer da etxean duzuen gauzarik gustukoena?

\*Martintxoren gauzarik gustukoena gari kutxak dira, garia gordetzeko kutxa handiak dira hauek eta helduak haserretzen zirenean bertan ezkutatzen zen!

- Eta zein da etxeko lekurik gustukoena zuentzat?

\*Martintxori Dolarea gustatzen zitzaion! Dolarea, sagar zukua egiteko makina handi-handia da, bertan sagarra zanpatu eta zukua lortzen zuten gero sagardoa egiteko, baina berari gehien gustatzen zitzaiona momentuan egindako zukua edatea zen.

## DOLAREA





Baserria irudikatzen saiatuko gara ondoren:

- Baserri esanda zer datorkizue burura?
- Zein dira antzekotasunak eta ezberdintasunak zuen etxeekin alderatuta?
- Orain jarri pentsatzen zuen logelako leihotik kanpora begira zaudetela, zer ikusten duzue?
- eta baserri batetik kanpora begira jarriko bazinete? zer ikusiko litzatekeela uste duzue?
- Zuek etxean, ba al dituzue baserriko leihotik kanpora begiratuta topa ditzakegun gauzak? (zuhaitzak, loreak, animaliak...)

Garbi dago baserrian gauza asko ikus ditzakegula. Baina, zer entzun dezakegu baserrian?

Soinuak entzun ondoren, saiatu soinu bakoitzaren zenbakia, liburuxkako irudi multzo ezberdinekin identifikatzen:

1. IRUDI MULTZOA: 1 (zukua erortzen)
2. IRUDI MULTZOA: 2 (zerra)
3. IRUDI MULTZOA: 3 (zintzarriak eta gurdia)
4. IRUDI MULTZOA: 4 (Dolareko habe nagusia martxan)
5. IRUDI MULTZOA: 5 (Sagar jotzea)
6. IRUDI MULTZOA: 6 (artaldea eta zintzarriak)

Baserriko gauza ezberdinak irakurri eta entzun ondoren, buruari eragin eta eman daitezkeen egoerei hitza jartzeko unea izango da, horregatik, ondorengo komikian zer gertatzen egon daitekeen idatzi beharko dute ikasleek.

Behin baserrian gertatzen dena idatzita bakoitzak bere etxeko errealitatea komiki batean islatzeko unea izango da. Horretarako, etxeko txoko ezberdinak eta horietan gertatzen diren ekintzak irudikatu beharko ditu ikasle bakoitzak.